

11. eta 12. GAIAK

1.- Zein da hipnotikoa?

- a) Lorazepam
- b) Diazepam
- c) Sekobarbital
- d) Flumafenilo

2.- Zeintzuk dira barbiturikoen eragin desiragaitzak?

NSZ-aren depresioa sortzen dute (dosiaren arabera), arnasa inhibitzen dute, dosi altuetan hipotentsioa eta bradikardia sortzen dute, heste-mugikortasuna jaisten dute, gibelego metabolismoa bizkortzen dute, etab. Beraien erabilerak menpekotasuna eta tolerantzia eragin dezake.

3.- Zein barbituriko erabiltzen da epilepsiaren tratamendurako (mantenimendua)?

Fenobarbital

4.- Zein da anestesian erabiltzen den antsiolitikoa?

Midazolam

5.- Zer gerta daiteke adineko pertsonen benzodiazepinak ematen dizkiegunean?

Desorientazioa, urduritasuna eta batzuetan oldarkortasuna ager daitekeela. Adineko pertsonetan ohikoa da erdibizitza luzeko benzodiazepina dosi bakar baten efektua egun batzuetan luzatzea (lo egoten dira) oso astiro kanporatzen baitute farmakoa

6.- Zein da hipnotikoa?

- a) Klonazepam
- b) Lorazepam
- c) Diazepam
- d) Flunitrazepam

7.- Zein da antidepressiboa?

- a) Klorpromazina
- b) Haloperidol
- c) Lormetazepam
- d) Zitalopram

8.- Zein erabiltzen da min neuropatikoa tratatzeko?

- a) Olanzapina
- b) Paroxetina
- c) Amitriptilina
- d) Diazepam

9.- Zergatik ez dira beta 2-antagonistak erabili behar asma duen gaixoan?

Estimulazioak bronkio-zabalkuntza eragiten duelako, beraz antagonistek kontrakoa eragiten dute: bronkio-uzkurdura

10.- Zein erabiltzen da bradiarritmian?

- a) Adrenalina
- b) Noradrenalina
- c) Dobutamina
- d) Isoproterenol

11.- Zein erabiliko zenukete sudur-kongestioa tratatzeko?

- a) Efedrina
- b) Adrenalina
- c) Ritodrina
- d) Salbutamol

12.- Adineko pertsonekin beta blokeatzaileak erabiltzen ditugunean, zein da gehienetan agertzen den eragin desiragaitza?

Bradikardia. Efectu honek tratamendua erabilgarria dela egiaztatzen badu ere, sinkopeak edo zorabioak kontrolpean izan behar ditugu (bihotz-maiztasuna < 60 lpm)

13.- Zein da alfa+beta blokeatzailea?

- a) Propanolol
- b) Atenolol
- c) Labetalol
- d) Bisoprolol

14.- Zeintzuk dira anesthesiaren indukzioan erabiltzen diren farmakoak?

Tiopental, etomidato, propofol.